

Goierritarra

327. zenbakia 2007ko irailak 21

Zegama HERRI BAT KORRIKA

Goierritarra

abuztuak 2007



Etxe
hutsa nola
bete?

Gehigarria

TRUK
moda eta osagarriak

Nafarroa etorbidea, 31
Beasain Gipuzkoa
T 943883545

raicome

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Or naburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

● GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU
ultrasoinuen bidez

NOBEDA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

Goierritarra

abuztuaren 2007



Etxe
hutsa nola
bete?

Klasikoa, rustikoa, minimalista, zen, mixing... dekorazio estilo ezberdinen izenak dira. Dena den, estiloak estilo, bakoitzak bere estiloa aurkitu behar du, bere beharrak asez, etxean goxo eta eroso egotea baita helburua. Bakoitzaren bizimodua, beharrak eta nortasuna islatu behar dira etxean, estiloetan itsutu gabe.

Etxebizitzak geroz eta txikiagoak diren honetan, espazioa ondo antolatzea da gakoa. Horretan laguntzeko daude adituak.

Kontuan izan beharreko beste faktore bat badago: haurrak. Etxean haurrak badiren edo izango diren, apainketa edo antolaketak ezberdina izango da.

GOIERRITARRA aldizkariaren erdialdean duzen dekorazio gehigarrian etxea gelaz gela janzten hasiko gara, sukaldetik hasita. Ondoren etorriko dira bainugela, egongela eta logela. Lan hori osatzeko, gai hauetan Goierri adituak diren hainbat lagunek lagundu digite.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Euskara txukuntzen:

Bat gora eta bat behera.

5. Ingurugiro txokoa:

Muskuilu zebraen mehatxua.

6. Aholkua:

Ahoko artikulazioa eta bere gaixotasunak.

7. Erreportajea:

Etxetik saltzen duten baserrietan seinaleak jarriko ditu Goimen-ek.

10. Elkarrizketa:

18/98 sumarioan epaituak izan diren Mikel Korta eta Imma Berriozabal, epaiaren zain.

14. Erreportajea:

Aurten 16 zegamarrek parte hartuko dute Zegama-Aizkorri maratoian.

18. Erreportajea:

8 goierritarrek parte hartuko dute Gipuzkoako Bertsolari txapelketan.

23. Non zer.

28. Iragarki laburrak.

30. Argazki zaharra.



Bat gora eta bat behera

Maizpide
euskaltegia

Gaztelaniazko **un/una** guztiak ez dira beti **bat** euskaraz (ezta **unos/unas** guztiak **batzuk** ere). Azken boladan, ordea, badirudi zorioneko **bat** hori behar baino gehiagotan erabiltzen dugula (askotan ‘-a’ artikulua erabili beharrean).

Batzuetan ez du ematen oso erraza denik zehaztea bata ala bestea, baina Euskaltzaindiak honen inguruan esandakoari jarraituz, arau batzuk emango ditugu, *testuingurua*, *ezagun/ezezagun*, *zenbakarri/zenbakaitz* eta beste hainbat aldagarri kontuan hartuta.

Noiz erabiliko dugu ‘bat’?

- Bat/asko** oposizioa azpimarratu nahi dugunean:
 - ✗ **Lau** gizon eta emakume **bat** sartu dira tabernan.
 - ✗ Kalimotxo **batek bi** zuritok adina balio du.
- Ipuin, istorio, pasadizo edo gertakariaren bat kontatzen hastean, **norbait** edo **zerbait** aurkezteko:
 - ✗ Pakok Gasteizko neska **bat** aurkeztu zigun atzo. Neska jateko modukoa zegoen.
 - ✗ Israeldar **batek** palestinar **bat** (eta ez **bi**) hil zuen atzo Zisjordanian.
- “(r)en bat” egituran:
 - ✗ Laurogei(ren) **bat** lagun joan ziren udaletxera, euren ezinegona adieraztera (=laurogei, gutxi gorabehera).
 - ✗ Lehergailuren **bat** izan da (=lehergailua izan da, antza).

Noiz erabiliko dugu ‘-a’?

- Izen zenbakaitzekin (haizea, hotza, beroa, ohorea...) erabiliko dugu; adjektiboren bat agertzen denean, ordea, **‘bat’** sartzeko aukera izango dugu.
 - ✗ Izugarritzko beroa dago kanpoan.
 - ✗ Ohorea izan zen guretzat Nelson Mandelarekin hitz egitea.
 - ✗ Ohore handi **bat** izan zen guretzat Nelson Mandelarekin hitz egitea.
- Izen zenbakarria izanagatik, balio generikoa duenean:
 - ✗ Nekazaria izorratu besterik ez dute egiten enpresa handiek.
 - ✗ Euskaltegia ez da euskara ikasteko leku bakarra.
- Zenbakarria izan arren, aurrez aipatu badugu:
 - ✗ Oporretan laku zoragarri bat ikusi zuten Alexek eta Anek. Lakua Arroyo herritik hurbil omen daga.
- Norbaiti edo zerbaiti buruzko iritzia ematean, iruzkinen bat egiten dugunean...
 - ✗ **Zuzen:** Hi alua haiz (edo alu hutsa, alu galanta).
 - ✗ **Oker:** Hi alu **bat** haiz !

✗ **Zuzen:** Zuek lotsagabeak zarete (edo lotsagabe hutsak, lotsagabe galantak).

✗ **Oker:** Zuek lotsagabe **batzuk** zarete!

✗ **Zuzen:** Hau mahaia da; hori aulkia da; hura leihoa da.

✗ **Oker:** Hau mahai **bat** da; hori aulki **bat** da; hura leiho **bat** da.

5. Nahiz eta zenbakarria izan, dugun informazio edo eza-gutzagatik, izen hori aipatzean bakar batez ari garela daki-gunean. Halere, adjektiboren bat agertuz gero, **‘bat’** erabiltzea izango dugu.


✗ Liburua besapean agertu zen Martxelo.

✗ Fariasa erretzen hasi zen Joxe Jabier.

✗ Tabernan sartu zenean Montekristo handi **bat** erretzen hasi zen Joxe Manuel.

Oharra: **Lehenengoari** eta **laugarrenari** erreparatu bereziki, horietan egiten baitugu huts gehien!

Hi martziano samarra
haiz, ezta?



Bai... eta hi
babalore
galanta!

Zuzendu, behar izanez gero...

- Hi, Lutxi, zerri bat haiz! Hire gorputzak ez din aste osoan urik ikusi!
- Koxme zigarro bat ahoan sartu zen bilerara.
- Seme, arren, ez hadi kalera atera! Haize bat zebilek...
- Poz bat eman zidan azterketa gainditu nuela jakiteak!
- Istripuren bat izan omen du gure Mariatxok!

OHARRA: lehenengoan zeri balsa (galanta) bat behar du; bigarren, zigarroa aboan; hugarren- eta izugarritzko baltza zebilek; laugarren, a ze poza barta nuen jakitean; azkena, zuzena da.



kutxa

Muskuilu zebraren mehatxua


Abuztuan Lareoko presan muskuilu zebraren larbak azaldu zirelaren berria jaso genuen. Baina analisi ezberdinak egin ondoren ikusi zen ez zela muskuilu zebrarik iritsi behintzat geure urtegitara. Zer ondorio dakartzta Muskuilu zebrak.

Muskuilu zebra XIX. mendean hasi zen Europa Ekialdeko ibaietan zabaltzen, ibaietako nabigazioari esker. Itsasontzien kaskoan itsasteko duten gaitasunagatik garraiatzen dira muskuiluak. Gainera, ontzien lastako urarekin batera garraiatzen dira larbak. Itsas garraioaren ondorioz, Ipar Amerikako zein Europa Erdialde eta Mendebaldeko hainbat ibaitan aurki daitezke egun, Iberiar Penintsulara ere ailegatu delarik.

Itsaso Beltzetik eta Kaspio Itsasotik etorritako ur gezako molusku bibalbio hau mehatxu bihurtu zen gure ibaientzat, 2001eko udan Ebro ibaiaren beheko tartean aurkitu eta, uretan gora Aragoiraino heldu zenean.

Muskuilu zebrak eragindako kalteak

- Substratu osora estaltzen dute eta desoreka ekologiko handia eragiten dute; bibalbio autoktonoen (galzorian, ia beti) maskorretan ere itsasten dira, baita karramarroen osko-



letan ere, azken horien heriotza eraginez.

- Hildako milioika muskuluren oskol pilaketak ibaietako hondoak aldatzen dute; espezie ugari jarri ohi dituzte arrautzak bertan, eta, ondorioz, horien ugalketa eragozten dute askotan.
- Izaki haien kaka pilaketak uretako materia organiko kopurua handitzen du eta uraren kalitatea txartzen du.
- Uretako fitoplankton ia guztia kontsumitzen dute, eta bertako muskuiluak eta bestelako omogabeak elikagaririk gabe uzten dituzte.
- Iragazteko duten gaitasun handia dela eta, metal astunak pilatzen dituzte eta, horiek kate trofikoan sartzen dira.
- Ondorio ekonomikoak ere oso garrantzitsuak dira, izan ere, egitura hidraulikoak kaltetzen di-

tuzte (presak, turbinak, isurbideak, ontziralekuak...); batzuetan hodiak eta ur-bideak buxatuz, gainera, azpian harapatzen dituen materialak erretzen ditu (burdina, zementua, ontzien kroskoak...).

Horien hedapena nola saihestu

Muskuiluen larbak oso erraz zabaltzen dira, eta, ondorioz, azkar hedatzen da espezie hori ibaiaren goiko zen beheko tartean; laku, aintzira eta urtegitako gune heze guztiak estaltzen ditu, ur geldiko guneak baititu nahiago.

Ez dira erabili behar arrantzarako karnata gisa, espezie hori gune berrietan sartzeko arriskua baitago, eta muskuilu zebrak betetako ibilguetan ibai-nabigazioa ekidin behar da. Espezie horrek kolonizatutako uretan erabilitako arrantzarako edo nabigazioarako materiala erabat desinfektatu behar da beste guneetan sartu baino lehen.

Ia ezinezkoa da behin muskuilu zebrak kolonizatutako gunea garbitzea; beraz, inbasioari aurea hartzea da onena.

Muskuiluen larbak oso erraz zabaltzen dira, eta, ondorioz, azkar hedatzen da espezie hori ibaiaren goiko zen beheko tartean.

JAKIN BEHARREKOAK

Euskal Herriko landaredia: ezagupen teoriko-praktikoak eta landarediarrekiko begirunea sustatzeko ikastaroa, Ordizian. Urriaren 4ean Barrena Kultur Etxean eta 6an Oiangun. Emailea: Joseba Garmendia (Aranzadiko biologoa). Plaza mugatuak. EHU aukera libreko kreditu bezala onartua. Izen-ematea: 636005938 edo 943087354 telefono zenbakietan, ikastaroa hasi baino aste bete lehenago. Antolatzailea: Oiangu Parkea Bizirik Natur Elkarrea. Laguntzailea: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

Ostadar lehiaketa. Zumarragako taldeak 3. diapositibala lehiaketa antolatzen du. Gaia, mendia eta natura direlarik. Lanak aurkezteko epea urriak 19. informazio gehiago www.zumarraga.net edo Urretxuko Kultur Etxea 943038088.

Baiji Lipotes vexillifer Izurde txinatarra, gizakiaren eraginez desagerrarazi den lehenengo zeta-zea da. Londresko Elkarre Zoologikoak egin duen ikerketaren ondoren ez dute espezie honetako alerik aurkitu Yangtze ibaian. WWF-k ez du behin betikotzat eman emaitza. Kutsadura, garraioa, arrantza eta energia elektrikoaren sortzeko azpiegiturak bere habitata deuseztatu dute.

Herrialde garatuako biztanle bakoitzak 3. munduko 16 hiritarrek adina energia kontsumitzen du.

Ahoaren artikulazioa, artikulazio tenporomandibularra (ATM) bezala ezaguna, jan, hitz egin eta irensteko beharrezkoa dugun gorputzeko zati garrantzitsu bat du. ATMa osatzen dutenak, hezurra, artikulazioa, ligamentuak, hortzak eta muskuluak dira.

Esan dezakegu dituen erabilera ugariengaitik, gorputzeko artikulazio erabiliena dugula eta, honen ondorioz, lan gehien egin eta arazo gehien sortu ditzakeena.

Zerk eragiten du ATMa gaixotzea?

Faktore ugari dira artikulazio honen gaixotzean eragina dutenak; hauetako asko, egunero egiten ditugularik, kaltegarriak direla ohartu

gabe. Adibidez hortzak etengabe estutzea, ahoa gehiegi irekitzea, txikletea, azkazalak eta boligrafoak kosk egitea eta telefonoa sorbaldarekin eustea. Beste batzuk aldiz ez ditugu guk eragiten, hala nola, kosk egiteko modu desegoki bat izatea (adibidez funda bat gaizki jarrita), kolpe gogor bat jasotzea eta bizkarreko arazoak izatea.

Norberak nola antzeman.

Sintoma nagusia mina da, hau agertuz gero, lehenbailehen espezialistarekin harremanetan jarri, honek larritasun mailaren arabera tratamendu bat edo beste ezarriko duenarik.

Lehenik eta behin bete beharreko pausoa lehen aipaturiko ohitura txarrak zu-

zentzea izango da. Hemen-dik aurrera pertsona bakoitzak bere tratamendu espezifikoa beharko du. Batzuek, fisioterapia beharko dute lagungarri moduan, beste batzuek ferula (kasu hauetarako ahoko aparato espezifikoa bat) eta beste batzuek aldiz, medikazioa. Aldiz, badaude zenbait pertsona dena batera behar izango dutenak eta kasurik okerrenera joz gero, kirurgia izango litzateke irtenbidea.

Aipatu beharra dago, ATMko gaixotasunak ez direla egun batetik bestera sendatzen, oso tratamendu luzeak baitira eta ondorioz norberaren kolaborazioa, patzientzia eta kostantzia behar-beherrezkoak dira emaitza onak izateko.



Nerea Larrea Oiarbide
Odontologo zirujaua
Beasain

Goierritarra

goierri **hitza**

Fax zenbaki berria

Faxa: 943 88 96 12

Telefono zenbakia: 943 16 00 56

GOIERRITARRAra eta **HITZA**ra

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA


Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76




SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA

KOL. Zka. 649 RPS. 144/02



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



☎-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 **ORDIZIA**

AUSO EGI

ERREFORMAK

- ✘ Tximini eta ekonomikak
- ✘ Berogailuak
- ✘ Iturgintza
- ✘ Zeramika erakusketa
- ✘ Bainuko altzariak



Baserriko produktuak salgai



*Etxetik saltzen duten
baserrietan seinaleak
jarriko ditu Goimen-ek*



Hipermerkatu eta saltoki erral-
doien garai hauetan, baserrieta-
ra, bertako produktuak eroste-
ra, oso jende gutxi inguratzen
da. Hori dela eta, duela 10 bat urte Goie-
rriko hainbat bidetan jarri ziren ‘baserri-

ko produktuak salgai’ zioten seinaleak,
baina ez zuten baserri bakoitzean zer sal-
tzen zen zehazten. Orain Goimenek seinale
berriak jarriko ditu, etxetik salmenta
zuzena egiten duten baserriak zeintzuk di-
ren eta zer saltzen duten zehaztuz.

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
idea berriak


Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN



Iñauti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

ARDI GAZTA GOIKOLA BASERRIA



Baserritarraren eta eroslearen arteko harremana modu desberdinetan ematen da: azoketan eroslearekin sortzen den hartuemana, etxez etxeko salmenta eta eroslea ere joan izan da baserrira bertara erostera. "Azken hori aukera ona da baserritarrentzat, normalean behintzat denbora aurreztea suposatzen dio eta etekin gehiago ateratzeko aukera ematen dio. Hainbat jende badaki baserriak non dauden, baina, beti daude bezero berri potentzialak eta hauei seinaleen bidez gerturatzeko aukera jarri nahi diegu", dio Goimen elkartearen Jose Manuel Zubizarretak.

Gaur egun geroz eta jende gehiago ibiltzen da paseatuz edo kirola eginez baserri inguruetan. Uda garaian kanpotarrak eta asteburuetan bertako bisitari ugari dabil; horiek ere baserriaren bat ikusi edo ezagutzeko gogoia izaten dute eta gerturatzeko bide bat ireki nahi zaie. Gizartea baserriko produktioaz, lanaz ingurugiroaren mantentzean duen garrantziaz... kontzientziazeko beharraz asko hitz egiten

da eta horretarako ere balio du, jendea baserrira inguratu eta nola lan egiten duten ezagutzeko. "Azoketan lantzen ari garen bezala, bitartekaririk gabeko, gertuko salmentak zaindu eta mantendu beharra dagoela iruditzen zaigu".

Zubizarretak dionez, baserritarren eta kaletarren arteko distantzia handitu egin da, "eta askotan jendea erdi beldurrez gerturatzen da baserrietara: Zein aterako zait? Zer esango diot? Zakerren bat askatua egongo da? Eta ez baldin badaude? Seinale bat ikusten badugu, berriz, badakigu bertako produktua saltzeko prest daudela".

Salmenta tokiak egokitzeko laguntzak

Etiket saltzeko aukera landu nahi duten baserriarrei lagundu nahi zaie. Horretarako aurretik ere baserriarrek laguntzak izan dituzte baserrietan salmenta puntuak egokitzeko. "Askotan espazio hori ez dute izaten eta beharrezkoa ikusten dugu. Adibide bezala, artzainek artegiak egin dituzte, hauek pabiloi batzuk dira,

lanerako lekua direlako eta sanitate beharreatatik oso aseptikoak dira, hotzak. Baina, artzaintzak ematen duen irudia beste bat da, tradizioa... Hori dela eta jendea harrera egiteko edo, adibidez, gazta probatzeko leku goxoagoak egokitzea ere beharrezkoa iruditzen zaigu", azaldu digu Goimeneko arduradunak.

Eskari berriak

Aurretik Goierri hasi eta Gipuzkoara lehenengo eta Araba eta Bizkaira zabaldu zen 'baserriko produktuak' jartzen zuen seinalea. Baina horrelako lanek jarraipen bat behar dute, batzuk utzi egiten dute, berriek sartu nahi dute... "Oraindik ere ez dakigu zein den benetako eskaria. Lehen Goierri 8 seinale zeuden, batez ere artzaintzarekin lotuak. Harrezkero artzain kopurua

igoenez, suposatzen da gehiago sartuko direla", azaldu du Zubizarretak. Artzainez gain, lore eta landareak, fruituak, ogia, ezta... saltzen dutenak daude eta zenbaiten eskaria badute dagoeneko Goimenen.

Hala ere ez dira baserri guztiak seinalatuko, nahi duten baserriena baizik. Hainbatek, etxean gutxi egoten direlako edo endredoa iruditzen zaielako ez dute seinalizaziorik nahi izaten.


Jartzeko asmoa dutenek ere ez dute nahi dutena edo nahi duten lekuan jartzetik. Goimeneko ordezkariak azaldu duenez: "Guk seinalizazioa baserriko bide gurutzetan jarri dezakegu. Ezin dugu errepidean jarri. Foru Aldundiko normatiba oso zorrotza da horretan eta onartuta daukan seinale mota bakarra orain arte era-

Seinale berrietan zein produktu saltzen den jakinaraziko da, baserriaren izenarekin batera.

AGNES IRIGOYEN
PODOLOGA

Elkargo kide zbk 230

Astelehenerik
ostiralera:
9:30etik
18:00etara



Tel.: 943 086 925
Sanperio kalea, 5 ORDIZIA

RPS: 38/07



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com

www.ondoeta.com

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxes: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



Orain arte bainbat baserrietan dagoen seinalea.

biltzen duguna da, distantzia baten barruan jarri behar dira eta ezin da ez baserriaren eta ez produktua izenik adierazi”.

Goierriko herri gehienetan baserri bideak seinalizatuta daude, bai auzoetako planoen bidez, baita baserri bakoitzaren izena jarritz ere. “Jendea baserrietatik urruntzen ari da. Lehen jakinak ziren baserri guztien izenak, baina gaur egun bizitza kaltetaragoa egiten da eta ez dira baserriak ezagutzen. Baserrietara kanpoko jende asko joaten da: pentsuzalea, albataria, esnezalea, hildako animaliak biltzera, siloen plastikoak biltzera, anbulantzia... eta guztiz beharrezkoa da seinaleak jartzea”. Aurretik dauden seinale horiekin integratuta baina kolore bidez desberdinduta,

baserrian zein produktu saltzen den jakinaraziko da. Orain artekoak berde edo egur kolorekoak ziren eta berriak horiak izango dira. Horretarako produktuen irudiak sortu dituzte Goime-

nekoek, letra handiagoan produktuaren izena jarriko da eta txikiagoan baserriaren izena edo produktuaren izen komertziala. Goimene-ko webgunean, www.goimen.org, zein baserrian

zein produktu saltzen den eta bertara nola iritsi azalduko da. “Dena prest dugu, orain interesa zein baserri- rrek duten jakin eta jartzen hastea falta da”, azaldu du Zubizarretak.

Erosketa ohituren aldaketak

Baserrietako seinalizazioarekin bertako produktuen kontsumoa bultzatu nahi da, azken finean erosketa eta kontsumo ohituretan izan diren aldaketei aurre egin. Honen inguruan ere jardun du Zubizarretak: “Orain erosketen orduan ahalik harreman gutxien izateko joera dago. Merkatalgunera joan eta inorekin hitz egin gabe egiten dira erosketak, eta ez da baserrira joan, erosketa egin, tertulian egon eta hori dena egiteko gogorik izaten. Ez dugu, hau zergatik erosten dugun eta ondoko hori zergatik ez, inori esplikatzen gogorik izaten. Gure ustez baserriak duen gertutasun hori balore bat da erosketak egiteko garaian, erosi behar duguna non eta nola egiten den ikustea, gainera dugun ingurua mantentzeko laguntzen ari gara. Baina oinarrian produktuak balio duelako joan behar gara bertakoa erostera. Askotan propagandaren bidez, nondik datorren eta nola tratatu duten ez dakigun produktuetaz etxe ondoan ekoizten direnetaz baino gehiago fidatzen gara. Baserrira joan eta baserriarrarekin hitz egiten badugu, harek azalduko digu zergatik dagoen aurten ale handiagoa edo txikiagoa... eta zer erosten dugun konturatuko gara, kalitatea ez dagoela neurrian eta itxuran bakarrik. Lurra, esku lana edo inbertsioa egiteko ahalmena kontutan hartuta”.





ANZIZAR, S. A.



**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxes.: 943 88 48

IÑAKI ARIN

asegurua



943 888 702
Oriako pasealekua, 20
BEASAIN



Epaiaren zain

18/98
 sumarioan
 epaituak izan
 dira Mikel Korta
 eta Imma
 Berriozabal

Sei hilabete pasatu dira 18/98 auziaren ahozko urte eta erdiko epaiketa amaitu zenetik. Auzipetatutako 52 lagunek, tartean Mikel Korta ordiziarra eta Imma Berriozabal zegamarra Auzitegi Nazionalaren ebazpenaren zain daude. Fiskalak, Berriozabalentzat 7 urteko kartzela zigorra eskatzen du; Kortarentzat, 9 urte.

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobekak"



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44

ALDANONDO GARAJEA
 MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
 alineazioa,
 aluminiozko llantak

Filtroak, olioak,
 engrasea

Frenu pastilak, tubo
 eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Zegaman bizi den elorriotarrentzat, Imma Berriozabalentzat, 1998ko maiatzaren 26an hasi zen “amesgaiztoa”. Orduan ireki zen 18/98 sumarioa. Bi urtera, 2000ko urtarrilaren 29an, Mexikotik bueltan, Madrilen, hegazkinetik jaistean, atxilotu zuen Mikel Korta ordiziarra. Guztira 55 auzipetu zituzten, guztiei ere “terrorismo” delitua egotzita. Berriozabal Enpresa atalean epaitu dute eta Korta, Xakin.

2007ko martxoaren 14an amaitu zen ahozko epaiketa luzea eta orain epaiaren zain daude. Enrique Molina Auzitegi Nazionalako fiskalak, 7 urte kartzela zigorra eskatu du Berriozabalentzat; 9 urte Kortarentzat.

**Urte eta erdiko epaiketa-
ren ondoren, sei hilabete
epaiaren zain. Hori nola
bizi duzue?**

Imma Berriozabal: Azken bederlatzi urteotan bizi naizen moduan bizi naiz. Momentu batzutan gauza bat pentsatzen dut, beste momentu batzutan beste gauza bat. Nire bizimodua egiten saiatzen naiz. Baina ez da erraza. Planik ezin duzu egin. Baina egia esan, kokoteraino nago, bederlatzi urtean. Maiatzaren 26an, gure atxilotetaz sumarioa ireki zen. Beraz, aurrera edo atzera egitea nahi du, egin dezatela egin behar dena. Barrura, ba barrura. Ez dut eskatzen barrura joatea, amaitzea eskatzen dut. Bederlatzi urtean horrela bizitzea, nahikoa eta gehiago da.

Mikel Korta: Ikusten dugu alde batetik, gure sumarioa

eta epaiketa nolabait dela, bizi dugun gatazkaren argazki oso-oso ona. Elementu guztiak agertzen dira hor. Euskal Herriak epaia eman du eta garbi utzi du sumario hori bertan behera utzi behar dela, ez daukala zentzurik, daukan zentzu bakarra politikoa dela, errepresioaren ikuspuntutik, eta Euskal Herrian ikusi dugu eta lortu dugu, eragile politiko, sozial eta sindikalak gure alde egotea.

Orain espainiarren epaiaren zain gaude. Betidanik esan dugu epaiketa politikoa dela, eta epaia ere politikoa izango da. Gobernu espainiarraren interes politikoen arabera etorriko da epaia. Zentzu horretan zain gaude. Badakigu egurrea emango digutela. Ez dakigu nola izango den, aukera ezberdinak baitaude. Aukera bat da, sententzia atzera, guri jakinarazi eta denok kalean utzi, Epategi Gorenaren errekurtsioa ikusi arte. Horrek suposatuko zuen urtebete gehiago kalean; baldintzapeko askatasunean, baina kalean.

Beste aukera bat da, epaia jakinarazi, eta batzuk edo denok, zuzenean kartzelara eramanean, eta Supremoko errekurtsioa kartzelan itxoieta.

Baina egia da orokorrean, sentsazioa Immak esaten duena dela: lehenbailehen errebisioa egin eta ikustea zer gertatzen den. Baina berriro esango dut: guretzat epaia emanda dago, guri interesatzen zaigun epaia emanda dago aspaldi. Kontua da, eta berriro ikusiko da, nahiz eta Euskal Herria-



Mikel Korta eta Imma Berriozabal, Ordizian egin zieten ongi-etorrian.

“Furgonetan bizi ginen”

2005eko azaroaren 21ean hasi zen 18/98 sumarioaren epaiketa Madrilgo Auzitegi Nazionalan. Bukatu berriz, 2007ko martxoaren 14an bukatu zen. Sei hilabeteren ondoren, oraindik ere zain jarraitzen dute auzipetuek. Urte eta erdiko tarte horretan, 203 auzi saio izan dituzte. 52 aldiz egin behar izan dute auzipetuek Euskal Herriatik Madrilera joan-etorria. Kostu pertsonalaz gain, kostu ekonomiko handia eragin die: hilean, 20.000 euro inguru behar izan baitituzte.

Astelehenetik asteazkenera izaten ziren normalean saioak. “Baina beti mehatxatuta geunden, hurrengoan aste osoa izango zela... Alperrik ere behin baino gehiagotan joan gara”, diote Mikel Kortak eta Imma Berriozabalek. Hasiera batean autobusez egiten zuten bidaiak, baina garestiegia zenez, azkenean, furgonetatan moldatu dira. 6 furgonetatan, bederlatzina lagun joaten ziren. Madrilan, aterpetxe batean egin dute bertako egonaldia. “Furgonetan bizi ginen. Hori zen sentsazioa”, adierazi du Berriozabalek “Asteburuetan, preso senideak kartzela ezberdinetarako eramateko osatu den boluntario taldeak, Mantxinek, utzi izan dizkigute furgonetak eta egia esan, horri esker, asko aurreztu dugu”, gaineratu du Kortak. “Nahiz eta hiru egun izan, igandean, maletaz pentsatzen hasten zara. Asteazken gauean berandu itzultzen zara. Ostegun eta ostiralean txipa aldatzen saiatu...”, dio. “Ohitu egiten zara, momentu batean hori da zure mundua, zure lagunak, zure familia... bihurtu dira. Familia bat osatu dugu. Eta gure artean oso ondo konpondu gara”, azpimarratu du Berriozabalek.

Ondo moldatu izanari buruz, detailetxo bat kontatu digu zegamarrak: “azkeneko egunean, fiskalak gure kontrako hitzak esan zituenean, gauza bat aipatu zuen lehenengo momentuan: ez zuela ulertzen, gu leku ezberdinetatik etorrita, zelan konpontzen ginen horren ondo. Berak buelta eman nahi zion”. Ordiziarrak zehaztu duenez, “berak aipatu zuen, gure arteko elkartasuna zela nolabait proba bat, denok ETAKo kide ginela esateko, bestela ezin zitekeela ulertu, 55 pertsona, hain ezberdinak, amankomunean hainbeste gauza egitea”.

“Elkartasunetik elkarlanera pasatu behar dugu, Euskal Herriaren hitzak benetako pisua izateko eguneroko errealitate politikoan.”

ren epaia hori izan, ez dela hori izango gauzatuko dena. Azken finean, Euskal Herriaren hitzak ez duelako ezertarako balio españolen interes politikoen aurrean. Eta hori niretzako nabarmentzekoa da. Parlamentu baskongadoak, gobernuak, denek esan dute epaiketaren aurka daudela, legislazio antiterroristaren aurka daudela, audientzia nazionalaren kontra, denek saltasena dute epaiketa epaiketa politiko bezala, ikuspuntu errepresio batetik... Zentzu horretan, lortu dugun elkartasuna oso-oso handia da, oso zaila da hori handitzea. Baina horren ondorioa ere garbi agertzen da. Oso ondo, hori esan duzue, baina zuen posizio hori, baskongadetako erakundeenak behintzat, ez du ezertarako balio, españolen interes politikoen aurrean. Horregatik aspaldi esaten ari gara esaldi bat, elkartasunetik elkarlanera pasatu behar garela.

Elkartasunetik elkarlanera mezu hori diozuenen, zer planteatzen duzue?

Elkartasunetik elkarlanera pasatu behar dugu, Euskal Herriaren hitzak benetako pisua izateko eguneroko errealitate politikoa. Beste elementu bat da, elkartasuna ez da ikusi behar da, momentu bakoitzean, inputatuak dauden pertsona edo erakundeekiko, baizik eta konturatu behar duguna da, elkartu egin behar dugula, denok diren eskubideak defenditzeko. Hor zehaztu dugu ildo bat, eraso antidemokratiko hauei aurre egiteko mekanismoak martxan behar ditugu.

Eta bestea da, eskubidea da, eskubideek ez daukate la izen eta abizenik. Eskubideak denok dira, bestela ezin da esan sistema politikoa horretan eskubideak errespetatzen direnik. Guri berdin zaigu, momentu batean Ibarretxe bera inputatua izatea, edo Ajuria-Eneako atezaina izatea. Erantzuna



na berdina izan behar zen. Azken finean, eskubideak defenditu behar dira, momentu horretan erasotua den pertsonaren gainetik, eskubideak dira defenditu behar dituenak. Alde horretatik nahiko kritikoak gara, adibidez, Ibarretxeren kasuarekin. Ibarretxe kasua eta Ibarretxe kasua aipatzen da eta berak hitz egiten duenean ere, ez du aipatu ere egiten, berarekin batera inputatua dagoen beste jendea, Arnaldo Otegi, Pernaldo Barrena, Juan Joxe Petrikorena. Kontua ez da baskongadetako lehendakariaren alde egitea, baizik eta, denok, denek, daukaten bilerak egiteko eskubidea. Ibarretxek berak izugarriko aukera galdu du, nolabai lideratzeko ere, benetan zerbait lideratu nahi baldin badu, eskubideen defentsa hori. Baina tokatu zitzaionean, ni, ni eta ni egin zuen. Guretzako gaingitu behar dena hori.

Urte eta erdiko epaiketan zehar, egoera politikoa ezberdinak bizi izan dituzue. Zuek ezertan aldaketarik nabaritu al duzue?

Korta: Garbi geneukan hasieratik hau epaiketa politikoa zela eta orduan horren arabera irtenbidea izango zuela. Eta garrantzitsua da, guk fase guztiak bizi izan ditugu. Gu epaiketarekin hasi ginenean, ez zegoen prozesurik. Eta nik prozesuarena beti kakotx artean jarri nahi dut. Hasieran ez zegoen ezer eta gu modu batean bizi genuen epaiketa. Gero “prozesua” hasi zen, su-eten bat behintzat bazen, baina guk gure egoeran ez dugu inolako aldaketarik nabaritu, ezertan ere ez. Eskaera, “prozesua” martxan zegoela egon zen eta hala eta guztiz ere, fiskalak, ahal zuen eskaerarik handiena eskatu zuen. Gero “prozesua” amaitu omen zen eta orain arte berdina

berdin jarraitu dugu. Epaiketa egiten ari zenean, zera esaten genuen: hemen prozesu demokratiko bat aurrera eramateko baldintza demokratikoak egon behar dira. Nik ezin du harekin hitz egin, aldi berean, minik handiena egiten diozun lekutik helduta baldin badaukazu. Askatasun demokratikoak ukatzen diren heinean, alderdi politikoak ilegalizatuak, manifestazio eskubidea debekatuta, audientzia nacionala bere paperekin... halako egoera batean ezin da prozesu demokratiko bat martxan jarri, ez hemen eta ez Katmandun. Egoera demokratiko bat behar da. Baldintza berdinean ez baldin bazaude, nola hitz egingo duzu eta nola iritsiko zara akordio batera. Beti txantaia baten pean egongo zara.

Gure kasuan ez dugu inolako aldaketarik nabaritu hiru fase horietan.

Berriozabal: Komunikabideetan zabaldu zen, lehenengo petiziotik redirá jaitsi zirela gure eskaerak. Eta hori gezur borobila da. Fiskalak eskatu dezakeen gehiena eskatuko digute. Beraien legeak esaten duen gehiena eskatu dute.

Korta: Egia da fiskalak nire kasuan lehenengo 15 urte eskatu zituela; Immarentzat 12. Egia da zenbakitan, zenbakiak neurtuta, jaitziera bat egon dela. Baina egia da baita ere, fiskalak berak esan zuena, eskatu zitzakeen zigorrik handienak eskatzen ari zela. Zergatik? Jarrai-Haika-Segi kasuan sententzia bat egon zen, nolabait, muga batzuk jarri zituena. Orduan berak ezin zuen gehiago eskatu. Eskatera momentu hori izan zen, su-etena indarrean zegoela, “prozesu” famatu hori martxan omen zegoenean... Orduan komunikabideek, eskaera hori, keinu moduan planteatu zuten, fiskalaren borondate politikoa arbera... Horrela saldu zuten

“**E**uskal Herrian sinisten dugun kontrako epaia da”

eta gu “moskeatu” ginen, fiskalak ahal zuen gehiena eskatu zuela, orduan nola uler daiteke hori, keiñu bezala, justu kontrakoa zenean. Komunikabideen jarraera hori salatu genuen. ETB izan zen lehena botatzen, eta besteek jarraitu egin zuten.

Etorkizuna nola ikusten duzue?

Berriozabal: Bukatzea nahi dut. Gu barrura joango gara, batzuk agian kalean geldituko dira, nik ez daukat esperantza gehiegi, eta errepikatuko denaren beldurra daukat. Gizartea ez baldin bada mugitzen, guri gertatu zaiguna errepikatuko egingo da. Pertsonalki, ni kartzelara joan behar baldin banaiz, joan egingo naiz, baina niri pena eta mina ematen didana, gazteak joan ziren, orain gu joango gara... Euskal Herria guztia joango gara barrura. Euskal Herria ez bada mugitzen agur gure etorkizuna. Ni kartzelara sartuko naiz baina irten ere bai. Nire asmoa da, sartu eta irten. Orain arte bizi izan ditudan 9 urteak nik ez ditut gura. Kartzelara joan eta han egingo dut egin beharreko lana, nik ez daukat hori pasatzeko beldurrik.

Korta: Oraingoan guri tokatu zaigu, guk denok badakigu zer den Euskal Herriaren alde lan egitea, oso garestia da askotan. Ez dakigu barrura joango garen ala ez, baina dena den guk esan nahi dugu, berdin jarraituko dugula, tokatzen zaigun lekuan. Zentzu horretan ez dutela lortuko nahi dutena, baina garrantzitsuena bestea da: denok baldin bagaude eskubide guztien alde, denok baldin bagaude legislazio antiterroristaren... kontra, goazen denok elkartzera eta harresi bat eraikitza hori frenatzeko, horrelakorik, ez guri eta ez beste inori ez gertatzeko horrelako gauzarik.

“Ezinezkoa bihurtu nahi dute Euskal Herri libre eta soberano bat”

Mikel Kortari oso garrantzitsua iruditzen zaio, “makrosumario dinamika horretan zein esparru dauden inplikaturik erreparatzen jartzea. Ondorioa oso argia: sumario dinamika honen helburua da, Euskal Herri libre bat ezinezkoa bihurtzea eta nolabait bukatzea Euskal Herrian egiten ari den borrokarekin”.

Ordiziarak, errepaso bizkor bat egin du ondorengo lerrotan: Jarrai-Haika-Segi, helburua zehatza da: Euskal Herriko historian belaunaldiz belaunaldi borroka horretan eman den erreleboa puskatzea. Nola? Mugitzen bazara kartzelara. Ekin eta Josemi Zumalabe fundazioa: herri mugimendua dinamizatu nahi dituzten erakundeei ere egurra eman. Euskal Herriaren borrokaren oinarria izan da, neurri handi batean, herriaren autoantolakuntza, herri mugimendua. Egin, Kale Gorria, Egin irratia: iritzia osatzeko informazioa behar duzu eta informazioaren monopolioa ere izateko eta jendearen iritzia manipulatzeko komunikabideak kontrolatzea behar dute. Egin eta Euskaldun Egunkaria itxi zituzten. Baina nik Euskaldunon Egunkariaren kasuan, esaten dut, zer da euskaldun egiten gaituena? Euskararekin bukatzeko ere, Euskaldunon Egunkaria eta AEK dira helburu. Gure kasuan, Xaki, nazioartea: beraiek esanda, zutabe bat da nazioarteko kolaborazioa. Poliziaren interbentzioa, errefuxiatuen entregak... beraiek nahi dutena lortzeko, informazio bakarria beraiena izan behar du. Horrekin bukatzeko ere, nazioartean mugitzen den jendea ikutzen dute. Udalbiltza: Nazio eraikuntzaren motorra, Euskal Herria sujeto bezala indartzeko helburuarekin sortzen den erakunde bat. Hori ere kaltegarria da, orduan Udalbiltzaren kontra jotzen dute. Enpresak: jende bat herri mugimenduari laguntzeko helburuarekin lanean hasten da eta lan hori ezker abertzalearen ikuspegitik eginez gero, hori ere moztu egin behar da. Askatasuna: errepresioaren inguruan inpugnitare osoa edukitzea nahi dute. Jendea badagoelako errepresioaren inpugnitarearen aurka borrokatzen dutelako, horrekin bukatzeko Askatasunaren kontra jotzen dute.

Beraz, sumarioz sumario, zer ikutu duten errepaso bat eginez gero, ondorioa oso garbia da: ezinezkoa bihurtu nahi dute Euskal Herri libre eta soberano bat. Orduan, askotan gure artean eraikuntza nazionalaren ildoan hainbeste kostatu zaigu ulertzea, Estatuak berehala ulertu. Hauek lanean hasten baldin badira inori baimenik eskatu gabe, berea eraikitzen, edozein herrik behar dituen zutabeak eraikitzen, jai daukagu, ezin izango dugu horren kontra egin. Beraz, gertatu baino lehen, goazen dinamika horren bultzatzaileak diren erakunde eta pertsonen kontra. Helburua ez gara gu, helburua Euskal Herria, Euskal Herria ezinezkoa bihurtzea.

Horregatik epaiaren aurrean, guk hori esaten dugu: grabeena ez da momentu honetan pertsona batzuk kartzelara joatea edo erakunde batzuk ilegalak izatea. Grabeena da, Euskal Herriaren kontrako errepresioa. Beraz, konturatu behar dugu, espabilatzen ez baldin bagara, benetan ezinezkoa egingo zaigu Euskal Herri libre bat eraikitzea. Eta hortik enfokatu behar dugu. Euskal Herrian sinisten dugunon kontrako epaia da.

Euskaldunon Egunkariaren kasua ere aipatu nahi nuke. Euskaldunon Egunkaria itxi zutenean jende bat orduan konturatu zen zer gertatzen ari zen. Ordura arte, zirudien, eraso, ezker abertzalearekin bakarrik identifikatuta zegoen. Euskaldunon Egunkaria itxi zutenean, ezker abertzalean zuzen-zuzenean integraturik ez zegoen jendearekin egin zuten topo. Baina nola? Orduan Egibar kalera aterata zen, bestea ere bai... Zuek, benetan jartzen baldin bazarete eraikuntza nazionalaren alde lan egiten, zuei ere gertatuko zaizue, horren kontra doazelako, pertsona eta erakundeen ginetik”, bukatu du Kortari.



Aurten 16 zegamarrek parte hartuko dute Zegama-Aizkorri maratoian



“Ehiztariak baino gezurtiagoak gara korrikalariak”

Dena prest dago Zegaman. Antolatzailleek ondo dakite zein lan egin behar duten, orain arte bezala, dena txukun eta dotore ateratzeko, Zegama-Aizkorri maratoiak hartu duen ospari eusteko. Korrikalarietarako ere, makina bat kilometro eta ordu sartu ondoren, iritsi zaie

ahal duten guztia emateko eguna. Aurten inoiz baino zegamar gehiago ariko dira gainera lasterka; 16 guztira. Eguraldia lagun, ikuskizuna ziurtatuta dago irailaren 23an, Zegaman eta Aizkorri inguruko parajeetan. Zegamako protagonisten iritziak bildu ditugu jarraian.

GUKlan
BAINUKO OSAGAIK
BEROGINTZA ITURGINTZA GASA

Tel.: 943 161 277 Faxe: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra:
Okorro, 6
ORDIZIA



mazda

☎ 943 889 296

Faxe: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma

BEASAIN

Bikar, S. A.



Herri oso bat, mendi maratoiaren bueltan bilduko da berriz ere irailaren 23an. Batzuk antolaketan, besteak korrika, besteak animatzen. Aurreko egunetan ere giro berezia egon da Zegaman. Festa egun handia bihurtu baita maratoiarena. Zegamarrak harro sentitzeko beste arrazoi bat gehiago badutela garbi utzi dute: Zegama-Aizkorri maratokia.

Guztiak ere zerura begira egongo dira, bai korrikalariak, bai antolatzaileak, bai ikusleak. Orain arte eguraldia alde izan dute. Dena den, badaezpada ere, ibilbide alternatiboa ere prest dute antolatzaileek.

Herrian inoiz baino korrikalari gehiago animatu da korrikan parte hartzera. Aurten zortzi lagunek lehenengo aldiz hartuko dute parte, beste zortzi beteranoren ondoan. Bertan sortzen den giroak bultzatu ditu gehienak, aurreko edizioetan sentitu duten inbidia. Edizio guztietan parte hartu duten Guillermo Pinillosek eta Eduardo Irastorza ere ez dute hutsik egingo. Guztira 16 zegamar izango dira beraz irailaren 23an, irteera puntuan. Tartean, neska bakarra: Maider Zabaleta. Iaz ere saiatu zen, baina ez zuen lasterketa bukatzea lortu. Duela sei urte egin zen lehenengo maratoin, lau herritarrek parte hartu zuten.

Heroe txikiak

Zegama-Aizkorri maratokiak Zegaman korrikarako zaletasuna sortu duenik ezin da ukatu. Herria korrikan jarri da. "Hau izan ez balitz, batzuk aritu ere ez ginatekeen egingo", adierazi digute zegamarrek. "Herri lasterketetan, Behobian parte hartu izan dugu gehienok, baina batere ibili gabeak ere badira", azpimarratu dute.

Herriko heroe txikiak ere bihurtu dira, maratoin parte hartzen dutenak. "Eroak ere bai beste batzuen-



Goian, ezkerretik eskuinera: Alberto Aierbe (antolatzailea), Iñaki Collado, Maider Zabaleta eta Iker Elorza.

Bebean: Jexux Zabaleta, Guillermo Pinillos, Jon Elorza, Igor Elizegi eta Asier Berastegi.

16 lagun korrika

Izen eta abizen, jarraian dituzue aurten mendi maratoin parte hartuko dutenak. Beste edizioaren batean parte hartu duenak ere badira zerrendan.

Edizio guztietan parte hartu dutenak: Guillermo Pinillos eta Eduardo Irastorza. Denak bukatu dituzte.

Laugarren aldiz parte hartuko dutenak: Jon Elorza eta Aitor Bitarte. Denak bukatu dituzte.

Hirugarren aldiz aterako dira irteera puntutik Zorion Barandiaran eta Iñaki Lasa. Aurreko biak, hasi eta bukatu egin zituzten.

Bigarren aldiz aterako direnak berriz, Jexux Zabaleta eta Maider Zabaleta dira. Jexuxek lehenengoa bukatu zuen, Maiderrek ez. Ramon Malkorrak bi alditan parte hartu du eta behin bukatu. Aurten ere ibilbidea egingo du, "korrikalari-eskoba" bezala. Azkena joango da, lasterketa itxiz.

Lehenengo aldiz parte hartuko dutenak: Iñaki Collado, Iker Elorza, Asier Berastegi, Igor Elizegi, Carlos Moran, Aitor Urbizu, Auritz Mendizabal eta Pablo Larrea.

Aurten ez, baina beste urte batzutan parte hartu izan dute korrikalariak ere badira Zegaman: Jose Migel Encinas, Jon Urteaga, Santi Gimenez eta Jose Arrieta. Azken honek ezin izan zuen bukatu. Aurreko hiruek, helmugara iristea lortu zuten.

tzat", diote. "Umeek asko estimatzen dituzte maratokia egiten dutenak".

Herritarrek soilik ez, inguruko korrikalariak ere amesten duten lasterkaldia da Zegama-Aizkorri. "Horrelako karrerarik ez dago inon", diote harro zegamarrek. Zegamak eta zegamarrek egin dute handi maratokia. Mimo handiz prestatzen dute maratokia eta mimo handiz zaintzen dituzte korrikalariak. Aurten Zega-

mako korrikalariak beste lasterketa batzuetan ere ibili dira, eta beste lasterketetan ez dute Zegaman bezalako girorik eta antolakuntzarik inon aipatu. "Kanpotik datozen korrikalariak ere horixe esaten dute. Abituailamenduak ere pobrea-goak izaten dira". Azkeneko abituailamenduan, azkeneko korrikalariarentzat Errioxako Ardo botila bat, Erreserbakoa, ematen diote Zegaman.

Zegamarrek emandako datuen arabera, iaz 18.000 ikusle bildu ziren maratoko egunean. "Iaz, Urbiatik Andraitza bitartean, jendeak egindako pasiloan joan ginen. Tourreko mendiko etapa bat bezala". Ikusle asko dago animatzen eta korrikalariak eraman egiten dituzte. "Otzaurtera joan eta tourra dagoela ematen du. Sa daardik behera Otzaurteko hotsak entzun egiten dira", diote.



Guillermo Pinillos eta Eduardo Irastorza zegamarrek, orain arteko Zegama-Aizkorri maratoi guztietan parte hartu dute. Hasi eta bukatu. Aurten ere irteera puntuan izango dira.

“Esperientzia handiko korrikalariak beti aipatzen dute: Sancti Spiritun behetik gora abiatzen direnean sutu egiten direla jendearen animoekin. Eskerrak gero atsedendleku txiki bat daukaten”.

Dorsalen zerrenda banatzen zaie ikusleei eta korrikalariak izenez animatzen dituzte. “Eta korrikalariak harrিতa gelditzen dira”.

Proba erabakigarria

Inoiz baino bereziagoa izango da aurtengo lasterkaldia. Munduko kopako proben barruan jokatu den azkena delako; podiuma Zegaman erabakiko delako. “25 punturen barruan daude lau aurrenekoak. Hiru kataluniar eta segoviar bat. Zegaman, puntuazio bikoitza izango dute, azkeneko proba denez”. Abuztuan jende ugari ibili da Aizkorri aldean entrenamenduak egiten.

Aurtengo edizioaren aldaketa garrantzitsuena, datarena da. Gehienek, nahia go lukete azken urteetan bezala, maiatzean egongo balitz, irailean izanda, oporrrak baldintzatzen dituztela. Hori bai, abuztuko ope-

rraldiak ondo aprobetxatu dituenik ere badago. Asier Berasategik eta Igor Elizegik adibidez, Santiago Bidea egin dute, txirinduz, astebetean.

Alberto Aierbe antolatzailereantzat ere ez da datarik onena. “Uda guztia entrenatzen pasatu behar izan dute eta ez dira oso aldekoak hain berandu izatea. Aurtengo data txarra da.

Baina antolatzailere bezala oso interesgarria zen Zegamako lasterketa erabakigarria izatea. Azkenean Zegaman erabakiko da podiuma. Bestela dataz, maiatza askoz ere hobea da”.

Dena den, datarik onena, maratoia sortu zenekoa omen litzateke, uztaileko lehenengo igandea. “Negu bukaeratik denbora baitago entrenatzeko. Maiatza ez da

oso data ona, eguna motza eta euria izaten baita gehienean. Baina Munduko kopan sartzeak eragin zuen data aldatzea. Maiatzan Alpeetan ez dago karrerarik egiterik, elurra egoten da. Han udan egiten dituzte”.

Guztiak izaten du alde ona eta kasu honek ere bai. Irailean izan da, denboraldi osoa egiten ari dira, prestakuntza bezala, karrera batera joan eta bestera joan. Izaban, Burgosen... Ikusteko eta ikasteko balio izan diote. “Beste karreretara joan eta ikasi egiten da, indarrak neurtzen. Hori oso garrantzitsua da”.

Irteera horien inguruan bitxikeria bat kontatu digu Alberto Aierbek. “Izaban afaltzeko makarroiak inon aurkitu ez eta gaueko 11etan, ohean egon behar zuten garaian, txuleta jaten harrapatu nituen, sagardo botila ondoan zutela”. Hurrengo eguneko emaitza onak ikusita, kalte handirik behintzat ez zieten egin txuletak, Jexus Zabaleta kopa eta guzti itzuli baitzen etxera. Beteranoen artean bigarren postua egin zuen, Idiazabalgo Lake Oiarbideren atzetik.



Iñaki Collado, Iker Elorza, Asier Berasategi, Igor Elizegi, Carlos Moran, Aitor Urbizu, Auritz Mendizabal eta Pablo Larrea aurten ausartuko dira lehenengo aldiz erronkari beltzen.

Idiazabaldarrak aipatu- ta, idiazabaldarrek halako “pike” txikiren ba omen du- te zegamarrekin. “Beldurtu- ta daude zegamarrekin. De- safio batean dabilta. Egun askotan topo egin dute en- trenatzen Aizkorri aldean”, argitu du Alberto Aierbek.

Herritarren artean, “pike sanoak” ere ba omen dituz- te. Entrenamenduetan lagu- na atzean noiz utziko ahale- gintzen dira behintzat.

Egi gutxi

Hori bai, elkarrekin hizke- tan gelditutakoan egi gutxi kontatzen dutela adierazi digu Aierbek. Bakoitzaren formari dagokionean, gezur ugari esaten omen dute ko- rrikalariak. “Ehiztariak bai- no okerragoak dira”. Gutxi ari dela entrenatzen, hango mina daukala, besteko mi- na daukala... bakoitzak be- re forma fisikoari buruzko egiak ezkutatu egiten ditu. Guillermo Pinillosen adibi- dea jarri du Aierbek. “Ga- soil motorra du Pinillosek. Azken egunetan hasi da,

ideiarik ere ez nuen eta”.

Hainbesteko kilometro- tan eta gora-beheretan, mo- menturik gogorrena zein ote den galdetu diegu zega- mar korrikalariei. Iritzi ez- berdinak daude horretan: Arazko igoera, 35. kilome- trotik 38. bitartekoa ere oso gogorra omen da, “luzea egiten da”. “Indarrik gabe datorrenarentzako okerrena bukaera da”. Alberto Aier- bek bere iritzia eman nahi izan du: “Beti esan izan da maratoietan, 30. kilometroa dela kritikoena. Zegamako maratoian 31. kilometroa, aldapa baten hasieran dago. Ezaugarri bereziak ditu ibil- bideak eta indarrak ondo neurtu behar dira: irten eta 3 kilometro eta erdi igo egin behar dira. Aratz bitar- tean ondo erregulatzea fun- tsezkoa da”.

Zegama

Mundu mailan, korrikala- rien artean, bere lekua har- tu Zegamak. Zegamar korri- kalari batzuk, doazen leku- ra doazela, Zegama jartzen

“Iaz, Urbiatik Andraitza bitartean, jendeak egindako pasiloan joan ginen, Tourreko mendiko etapa batean bezala”.

hemengo mina eta hango mina daukala esaten. Gero 5 ordu eta 10 minutuan egingo du”.

Zegamar gehienak, be- rraien kontura aritzen dira entrenatzen. “Egun batean mendian egurtu eta hurren- goan bizikletan” beharbada. Etxean haurrak dituztenek, ahal dutenean ahal dutena egiten dute, horrelakoetan programazioek ez omen dute- eta balio.

Maider Zabaletak iaz izan zuen lehenengo aldia eta prestatzaile batekin aritu zen, “pauta batzuk jartzeko,

duen elastikoa ere erama- ten dute, txirrindularitzako taldearena aprobetxatuz.

Alberto Aierberen ustez, herrian sortu den taldeak Zegamaren izena beste lasterketetan zabaltzea polita litzateke, eta horretarako elastikoren bat sortzea ego- kia ikusten du. “Gauza poli- ta litzateke, Udalak edo Mendi Elkartek, kamisetan bat ateratzea, herriko talde bezala. Beste lasterke- tetan Zegama ikusten dute- nean, jendeak ezagutzen du maratoiagatik. Herria saltze- ko beste modu bat da”.



Maider Zabaleta izango da Zegamako neska bakarra. Aurten bigarren aldiz saiatuko da belgumara iristen.



Jexux Zabaletak bezala, Zegama izena zabaltzen saiatzen dira zegamarrak.

Bazkaria eta erronka

Hilabete, egun eta ordu askotako ahalegina egin dute zegamar korrikalariak. Hori bai, lasterketaren hurrengo as- teburuan, bazkariren bat edo afariren bat egitekotan di- ra. Bazkaria nahiago omen dute gehienek, “egurra” ema- teko.

Azkeneko hitza dena den, Alberto Aierbek hartu du, guztiei erronka botaz. Jexux Zabaletak omen dauka, mendiz, Zegamatik Arantzuzara arteko, marka. 18 urte zituela jarritako marka da. “Ezetz hobetu!”.



Gipuzkoako Bertsolari txapelketaren G puntua

Goierriko 8 bertsolarik hartuko dute parte

ONE MENDIZABAL
ILEAPAINDEGIA

Emakumezkoen nahiz
gizonezkoen ileapaindegia
Astelehen goizetan zabalik



943 18 04 92
Helbarrena, 24
ATAUN

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lurrindegia eta opari gaiak



**ARANDIA**
Garajea

N-1, z/g
Iurre Auzoa

OLABERRIA

AUTOEN KONPONKETA

☎ 943 88 09 47

79 bertsolari izango dira lehian, aurtengo Gipuzkoako Bertsolari txapelketan. Tartean, 8 goierritarrak izango dira: Joxe Munduate, Iban Urdangarin eta Aitzol Barandiaran ataundarrak, Iker Zubeldia zegamarra, Aitor Sarriegi, Ekaitz Goikoetxea eta Iñaki Apalategi beasaindarrak, eta Odei Lopez legoretarra.

Goierritar gehiago ere izango dira txapelketako lan ezberdinetan. Bertsoen jarduna neurtzen, epai-mahaietan, bost lagun ariko dira: Asier Oiarbide, Ioritz Imaz eta Miel Mari Imaz idiazabalarrak, Martin Aramendi ataundarra eta Jon Agirre lazkaotarra.

Bertsolariei lana jartzten berriz, Saroi Jauregi zaldibiarra eta Inaxio Usarralde lazkaotarra ariko dira.

79tik zortzi

Irailaren 22an hasiko da txapelketa, sailkapen fasearekin. Bertan 72 bertsolarik hartuko dute parte, 6 bertsolariz osatutako 12 saiotan. Sailkapen fase horretatik 23 bertsolarik egingo dute aurrera. Saio bakoitzeko lehenengoa, eta gainerakoak puntuazioaren arabera. Sailkapen fasea gainditu dutenei, 2003ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalean izan ziren 7 bertsolari batuko zaizkie: Jexux Mari Irazu, Iñaki Gurrutxaga, Ekaitz Goikoetxea, Aitor Mendiluze, Jon Maia, Jon Martin eta Amaia Agirre. Txapeldunak, Maialen Lujanbiok, ez du parte hartuko. Beraz, 30 bertsolariko taldea lehiatuko da finalaurdenetan. 18 bertsolarik lortuko dute finalerdietarako txartela. Finalean, berriz, 8 izango dira. Donostiako Illunbe zezen-plazan jokatuko da finala.

Goierri berton, hiru saio izango dira aurtengo Gipuzkoako txapelketan. Sailkapen faseko bi saio: irailaren 23an, Zaldibian, arratsaldeko 5etan, herri an-

Ekaitz Goikoetxea, 2003an finalista

“Duela lau urtekoa ezin dut erreferentziatzat hartu”

2003ko Gipuzkoako txapelketako finalean, Goierrik izan zuen bere ordezkaria: Ekaitz Goikoetxea beasaindarra. “Nik ez dut erreferentziatzat hartzen orain dela lau urte finalean izan nintzela. Azken batean, txapelketa oso ona egin nuen baina hor jarraipena behar da. Irazu, Mendiluze, Maia, Amaia Agirre, Uranga... asteburuero eta udan ia egunero saioak dituzte eta guk segida hori ez daukagu inondik inora. Oraindik txapelketa batean 1.200 lagun aurrean kantatzen dugunean urduri jartzen gara. Triste da hori eta ni bezala gehienak daude eta oso-oso lehia desleiala da, eta oso gogorra da”.

Egoerarekin kritikoa izanda ere, txapelketan parte hartzea erabaki du beasaindarrak. “Izena ema baldin badut da, betidanik gustatu izan zaidalako lehia horrek atzetik dakarrena: prestatu beharra, beste batzuekin elkartu beharra... eta ez bertsoarako bakarrik, bestelako zenbait jarduerarako, bizitzarako ere egokia delako. Informatzeko beharra sentiarazi zure buruari, egunkari ezberdinak irakurri, telebista ikusi, esaldiak borobildu... txapelketa batek eramaten zaitu zure burua hobetzerako, puntuazioa jartzera, gehiago irakurtze-



ra, informazio iturri ezberdinak eskura izatera, 5 zentzumenak aktibo izatera”.

Final laurdenetako fasean sartuko da Goikoetxea txapelketan eta pausoz pauso joan nahi du. “Nik uste dut, nire maila berez, gauzak ondo joanez gero, beti dagoelako arriskua egun txarra izanez gero, pote batekin kanpoan gelditzeko, baina ondo, normal kantatuz gero finalerdietan egon beharko nukeela pentsatzen dut”, gaineratu du beasaindarrak.

tzokian; eta urriaren 6an, Ataunen, arratsaldeko 6etan, herri antzokian.

Erabakigarria izango den saioa ere izango da Goierri, azkeneko finalaurrekoa Ordizian jokatuko baita. Bertan erabakiko da finalean zein zortzi bertsolarik parte hartuko duten. Abenduaren 1ean izango da saioa, Majori kiroldegian, arratsaldeko 6etan.

Goierritarren saioak

Zozketa bidez aukeratu da bertsolari bakoitzak, non eta norekin kantatuko duen. Zeinbait kasutan, bertsolari goierritarrak elkarrekin ariko dira. Gehienek kalterako izango dela uste dute: batetik elkar oso ondo ezagutzen dutelako, eta bestetik, sailkapen fasetik,

lehenengoak bakarrik izango duelako txartela ziutatuta. Beraz, batek aurrera egiteko bestea atzean gelditu behar.

Joxe Munduate Zaldibian estreinatuko da, irailaren 23an. Iker Zubeldia, Iban Urdangarin eta Iñaki Apalategi elkarrekin lehiatuko dira, irailaren 29an, Zumarraga-Urretxuko Zelai Ariztin. Aitor Sarriegi eta Aitzol Barandiaran ere bai, irailaren 30ean, Arrasaten. Odei Lopez azkenik, urriaren 6an, Errenterian izango da. Ekaitz Goikoetxea, final-laurdenetan sartuko da txapelketan, azken txapelketan, zortzi finalistetarikoa izan baitzen.

Goierriko bertsolariak helburu ezberdinekin aurkeztu dira txapelketara. Hu-

rrango bi orrietan dituzue bakoitzaren asmoak.

Gpuntua

Esanahi ugari izan ditzakeen leloa jarri diote Gipuzkoako Bertsolari Txapelketari: Gpuntua. “Gpuntua-k izan ditzakeen esanahi eta konnotazio guztietatik aparte, G handi horrek Gipuzkoako bertsolaritzaren oinarri zabala irudikatzen du; bertsozaleetatik hasi, bertso eskola guztietatik pasatu eta lehenengo parte-hartzaileetik azkenekora arte”, adierazi du Oroitz Azurmendik, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko koordinatzaileak.

Txapelketari buruzko informazio guztia jarraitzeko, www.gpuntua.com webgunea sortu dute antolatzaileek.



Iñaki Apalategi

1982an jaioa. Beasaindarra. Xenpelar (2004) eta Osinalde (2003) sariketak irabazi ditu. 2003an Gipuzkoako txapelketan, lehen fasean kantatu zuen.

“Niretzat txapelketan, helburuak bi modutan neur-tzen dira: helburua beti da finala baina hori ez lortu-ta ere, gutxieneko helburua Euskal Herrirako txapel-ketarako sailkapena lortzea da. Horretarako, finaler-dietan sartu behar da. Finalarekin itsutu gabe, beste-ak daukan garrantzia ere baloratu behar dugu”.



Aitzol Barandiaran

1986an jaioa. Ataundarra. Eskolarteko txapelketetan Goierriko taldearekin bi aldiz txapeldun izana. 2007an, Abra eta Osinalde sariak irabazi ditu. Lehenengo aldiz hartuko du parte Gipuzkoako txapelketan.

“Kontuan hartuta aurten dela lehenengo aldia, ilusio handiarekin nago baina gaizki aterata ere, zer den probatzea da helburua. Guri gustatzen zaizkigu gau-zak ondo egitea, eta goazen momentutik abal dugun ondoen egitera joango gara. Helburua, abal den urrutien iristea da, jakinda oso zaila izango dela”.



Ekaitz Goikoetxea

1980an jaioa. Beasaindarra. Euskal Herriko Eskolarteko txapelketak irabazi zituen 1997an eta 1998an. Orixe saria irabazia, 2005ean. Bertsopaper lehiaketa ugari irabazi ditu. 2003ko Gipuzkoakoan, finalista izan zen.

“Pausoz pauso joatea da nire helburua eta nire bu-ruarekin abalik eta gustuen gelditzea. Final laurdene-tan basiko naiz ni. Nik uste dut, nire maila berez, gauzak ondo joanez gero, beti dagoelako arriskua egun txarra izanez gero, poto batekin kanpoan geldi-tzeko, finalerdietan egon beharko nukeela pentsatzen dut”.



Odei Lopez

1988an jaioa. Legorretarra. Eskolartekoetan kantatu izan du, eta lehen aldiz ariko da Gipuzkoako txapelketan.

“Bat behar zela taldea osatzeko eta horrela animatu naiz kantatzera. Nik helbururik ez daukat. Hori bai, barregarri ez geratzea dut helburu”.



Joxe Munduate

1972an jaioa. Ataundarra. 1989an Eskolarteko txapel-duna izan zen eta urte berean, Lizardi eta Osinalde sariak irabazi zituen. 2003ko Gipuzkoako txapelketan, lehen fasean kantatu zuen.

“Saio on bat egiten badut nabikoa. Ez dut aparteko ilusiorik. Meta berezirik jarri gabe atera naiz. Izena ere berandu eman dut, taldeak osatzeko zeudela-eta artean. Behin izena emanaz gero gustatzen da saio on bat egitea eta gero ateratzen dena ikusi egin behar.


Garai bateko lebiarako gogo hori ez daukat, garai bateko pultso hori faltan nabaritzen dut”.



Aitor Sarriegi

1976an jaioa. Beasaindarra. Lizardi saria irabazi zuen 1992an eta Osinalde 1993an. Bertsopaperetan sari ugari lortu ditu. Euskal Herriko txapelketan finalaurrekoetan kantatu du 1997, 2001 eta 2005ean, eta Gipuzkoakoan 1995ean.

“Euskal Herriko bertsolari txapelketarako txartela lortzea da helburua. Hortik atzera etor daitekeen guztia ondo. Hori lortu ezean, dezepzioa bai, baina frakaso bezala ez hartzen ere saiatu nahi nuke. Oso zaila da goela iruditzen zait aurten. Saillapen fasean izugarritzko garbiketa egiten da, 72tik 23 pasatzen baitira eta errespeto handia sartzen da”.



Iban Urdangarin

1985ean jaioa. Ataundarra. Eskolarteko txapelketan Goierriko taldearekin 98an eta 99an txapeldun. Handitan, Gipuzkoako Eskolartekoa irabazi zuen, 2000. urtean. Osinalde 2006. urtean. 2003ko Gipuzkoako txapelketan azken laurdenetara iritsi zen.

“Ateratzen dena. Orain dela lau urte final laurdenetara behintzat ailegatu nintzen eta borraino behintzat ailegatu nahi nuke. Gero ikusiko dugu zer ateratzen den baina borraino iritsita nabikoa izango dela uste dut”.



Iker Zubeldia

1981an jaioa. Zegamarra. 2001. urtean Osinalde saria irabazi zuen. 2003ko Gipuzkoako bertsolari txapelketan, finalaurretaraino iritsi zen.

“Finalerdietara iristea da helburua, denona ere bala dela uste dut, bemendik hiru urtera Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko. Saio txukun bat eginez gero ere konforme geldituko nintzateke, ez daukat aspirazio gehiegirik. Orain dela lau urte, batere espero gabe, finalerdietan sartu nintzen. Aurten presio gehixea-izango dut eta ez dakit nola eramango dugun”.



Ordizia Kantuz

2007

irailak **21** **PAKO ARISTI & MIKEL MARKEZ:**
TABUAK SALTSA BERDEAN
///Euskaldunon tabuak larrugorritan musika eta ipuinen konpasean///

irailak **28** **ALL JAZZ ERA**
///Bere funk musikak ez zaitu ez hotz ez bero utziko///

urriak **05** **IGELAREN BANDA**
///Betiko doinuak inprobisazioaren bidez gaurkotuta///

urriak **19** **MORAU**
///Gaur egungo gizarteari umorez egindako argazki musikala///

urriak **26** **Kantu afaria BERRIKETAN taldearekin eta**
BERTSO RAP SOUND SYSTEM*
///Bertsoak, hip-hopa, breaker dantzariak eta reggaearen arteko maitasun-istorioa///



Kontzertu guztiak Barrena Kultur Etxean izango dira gaueko 22:00etan.
*Kontzertu hau Sustraietz Blai Kultur Elkartearekin elkarlanean antolatu dugu eta Plaza Nagusian izango da. Kantu-afaria 20:00etan eta Kontzertua 22:00etan

BABESLEAK



LAGUNTZAILEAK





Itsasondo

Herriko festak irailaren 21etik 23ra

Irailak 21, ostirala:

16:30ean: Zinta karrera.

18:00etan: Txupinazoa.

18:00etan: Ginkana.

19:30ean: Itsasondo eta Aramaren arteko futbol derbia.

21:30ean: Herri afaria.

24:00etan: Dantzaldia.

Irailak 22, larunbata:

09:00etan: Goiz eresia.

11:00etan: Altzagaratera igoera.

11:00etan: Altxorraren bila.

13:00etan: Paella txapelketa.

16:30ean: Umeentzako Beitiko igoera.

18:30ean: Olinpiada herrikoiak.

20:30ean: Afari merienda plazan eta mozorro gauaren hasiera.

23:00etan: Pikutara eta Begoña Bang-Matu.

Irailak 23, igandea:

09:00etan: Goiz eresia.

Goizean zehar, puzgarriak eta haurrentzako tailerrak izango dira.

12:00etan: Hamaiketakoa.

13:00etan: Herri kirolak: Idiazabal Asteasuren aurka.

17:00etan: Haurrentzako tailerrak eta puzgarriak izango dira.

17:30ean: Mus txapelketa.

18:30ean: Kuxkuxtu.

20:00etan: Sagardo dastaketa.

Idiazabal

San Migel jaiak Ursuaranen

Irailak 28, ostirala:

19:30ean: Jaiari hasiera emango zaie suziri eta kanpaiekin.

Ondoren: Afaria: mondejuak, gixadua eta ardi txuletak.

Afalondoren: XIV. "Mus azkarra" lehiaketa.

Irailak 29, larunbata:

12:00etan: San Migel eguneko meza.

Ondoren txistulariak, Agirre eta Lazkano bertsolariak eta trikitilariak.

14:00etan: Udaletxe bazkaria.

17:00etan: XVI. Toka lehiaketa.

Gero, bertsolarien bigarren saioa eta iluntzean, afariak eta trikitixa goizaldera arte.

Irailak 30, igandea:

11:00etan: Meza Nagusia.

12:30ean: Herri Kirolak: Ursuarango taldea Idiazabalgo taldearen aurka.

14:00ean: Herri bazkaria. Iban Urdangarin eta Iker Zubeldia bertsolariak, eta trikitilariak bertan izango dira.

17:30ean: Joku tradizionalak haur eta helduentzat trofeo eta opariekin eta txokolate jana.

Oharra: San Migel jaietan Ursuarango argazki zaharren erakusketa izango da lokalean.

Itsasondo

Itsasondo Aztergai Beka

Itsasondo aztergaitzat harturik, harrobien ustiaketaren nondik norakoak eta horrek herriaren garapenerako izan duen garrantzia aztertzea da 'Itsasondo Aztergai Beka'-ren helburua. Ikuspegi historikoa, soziologikoa, pertsonala eta abar landu beharko dira. 6.000 euroko beka dago eskura, gai hori aztertu nahi duenarentzat.

Beka arautuko duten oinarriak Itsasondoko udal-txean eta www.itsasondo.net helbide elektronikoan eskuratu daitezke.

Proposamenak urriaren 17ra bitarte aurkeztu beharko dira Itsasondoko udaletxean.

MERKALDE, S.L.

ASPIRAZIOKO ETA ERAUZTEKO INSTALAZIO ETA TRESNERIAK
HONDAKIN SOLIDOEN ERRAUSKETA
DEP. LEHOR ETA BUSTIRAKO FILTROAK



Tel.: 943 882 622

Faxa: 943 880 916

Kale Nagusia, 37

ITSASONDO

Jai
zoriotsuak
denoi!

Alzaga

San Migel jaiak 2007

Irailak 23, igandea:

12:30etan: Herri mailako ginkana.

14:00etan: Lagunarteko bazkaria, trikitilariak eta Jesus Mari Irazu eta Amaia Agirre bertsolariak alaiturik.

18:00etan: Pilota partiduak. Gaztetxoak: Irribarria-Murua / Gotilla-Larrea. Afizionatuak: Urmeneta-Apeztekoa / Insausti-Aranalde.

Irailak 29, larunbata, San Migel eguna:

**10:00etatik 13:00-
etara:** Haur parkea.

12:00etan: Meza Nagusia.

13:00etan: Hamaiketako.

**16:00etatik 18:00-
etara:** Haur parkea eta gaztetxoentzat herri kirolak.

20:30ean: Afaria Artegain frontoian: arkumea burruntzian erreta. Tike-tak aurrez eskuratu behar dira.

Ondoren: Gari eta Inaki trikitilariak.



Irailak 30, igandea:

12:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Josu eta Aiora trikitilariak.

18:00etan: Herri Kirolak. Aizkolariak: Redondo-Lasa / Atutxa-Otaño, lana: Oinbiko bat txanda librean eta 4 kana erdiko eta 4 hirurogei ontzako. Harrijasotzailea: Ur-tzi Telleria.

19:00etan: Sagardo eta txistorra dastaketa. Aulia, Begiristain, Zabala, Urbitarte, Aburuza eta Olagi sagardotegietako sagardoak.

Gaintza

San Migel jaiak 2007

Irailak 28, ostirala: San Migel bezpera:

17:00etan: Jaien hasiera suziriekin.

17:30ean: Haur jolasak.

20:30ean: Sagardo dastaketa eta afaria.

Ondoren: Erromeria Laiotz taldearekin eta mozorro gaua sariekin.



Irailak 29, larunbata: San Migel eguna:

11:00etan: Meza nagusia.

12:00etan: Herritarren arteko pilota partiduak. Aurrez jokatzen aritu diren frontenis txapelketako finalak, banaka eta binaka. Elortza anaiak alaiturik.

14:30ean: Herri bazkaria Kale Txiki jatetxean.

16:00etan: Txiki festa puzgarriekin eta plazan Elortza anaiak.

19:00etan: Toka txapelketa herritarren artean.

23:00etan: Abarlotzekin kantaldia.

Ondoren: Dantza plaza (dantzaldi gidatua), Erdizka Lauetan taldearekin.

Irailak 30, igandea:

11:00etan: Meza nagusia.

Ondoren: Jubilatuentzat hamaiketako.

12:00etan: XXIV. Txirrindulari igoera, Agurtzane eta Jon Elustondo trikitilariak alaiturik.

17:00etan: Nazioarteko erara sega apustua. Bakarkako eta Taldekako norgehiagoka: Zaldibia, Amasa eta Baliarainen artean.

Ondoren: Mondeju eta ardoa neurrian eta erromeria, Agurtzane eta Jon Elustondo trikitilariekin.

**ALTZAGARATE
JATETXEA**

NEKAZAL TURISMOA

Ezteiak - Jaunartzeak
Enpresa bazkariak
Plater konbinatuak

☎ **943 88 41 96**
ALTZAGA

Olagi

Sagardotegia -Jatetxea

Urte guztian zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko meua

☎ **943 88 77 26 ALTZAGA**

GAINTZAKO UDALA

**Jai zoriontsuak
herritarro!**

**Txano Gorritxo
ala Txano Zuritxo?**

combina2
MULTIOPTICAS

Bi betaurreko-pare
98€an,
kristalak bame

MULTIOPTICAS
1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

Eskaintza hau 07/09/01etik 07/10/31ra arte egongo da indarrean. Fashion eta Giulio Tabacchi marketako armazoiak + Beslayt 1.5 lente organiko gogortuak; +2 zilindroa; +2tik -4rako esfera. Eskaintza hau erabiltzeko, bi betaurrekoetan graduazio bera izan behar da, eta ez du balio beste promozio batzuetarako.

J. Carlos Guerra 1 Tel. 943 79 29 95 ARRASATE	Ibargarai 16 Tel. 943 76 15 75 BERGARA	C/ Nueva 15 - GROS Tel. 943 32 66 49 DONOSTIA	Bidebarrieta 2 Tel. 943 20 05 22 EIBAR	Koldo Mitxelena, 7 Tel. 943 51 78 11 ERRETERIA	Mendibil M. G. Tel. 943 63 99 01 IRUN	J.M. Barandiaran Enp. Tel. 943 88 99 88 ORDIZIA	San Frantzisko 23 Tel. 943 69 84 70 TOLOSA
--	---	--	---	---	--	--	---



ALTZAGAKO UDALA

Herritar guztiei eta egun hauetan bisitatuko gaituzunei festa alai eta zoriontsuak opa dizkizuet.

Alkatea



Ondo pasa Lazkaoko Sanmigelak!

ERLO TABERNA

San Migel zoriotsua
opa dizkizuegu denoi

943 880 233 / Elosegi, 17

*Heren
Txeka*

- X Menua
- X Karta
- X Ogitartekoak

Hirigoien 4-6
LAZKAO
Tel.: 943 888 308

Lazkaoko Batzokia



San Migel
zoriotsua denoi!



Uhaitz, 2
LAZKAO

TABERNA



HEREN taberna

LAZKAO

Lazkao

San Migel jaiak

Irailak 28, ostirala:

19:00etan: XV. Sagardo dastaketa elkarteek banatuta, taloak eta trikitrixa.

22:00etan: Bertsotranpa saioa plazan, Lazkao Txiki bertsolariaren omenez.

Irailak 29, larunbata: San Migel eguna:

11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 19:30era: Haurren parkea. Kartak, gaztelu erraldoia, prix handia, sugea, txirrista, amerikar pista...

11:00etan: San Migeletako eskolaume eta helduen pelota partiduen finalak.

12:00etan: San Migel parrokiaren jubilatuei eskainitako meza, Lazkao abesbatzaren partaidetzarekin. Oin Arin dantza taldeak jubilatuei harrera eta meza ondoren, dantza eskainiko die.

14:00etan: Jubilatuen bazkaria.

21:00etan: Herri afaria.

22:30ean: Drindots taldearekin dantzaldia.

Irailak 30, igandea: Dantzari Txiki eguna:

Goizean eta eguerdian, herriko eta inguruko dantza taldeen dantza saioak.

17:00etan: Patxi Perez eta bere taldearekin, erromeria.

Ordizia

Jose txo Imaz lasterkaldia, irailaren 30ean

Zazpigarren urtez, iraileko azkeneko igandean, irailaren 30ean, Jose txo Imaz korrikalari zenaren omeneko lasterkaldia jokatuko da, Ordizia-Beasain-Lazkao-Ordizia ibilbidearekin. 10 kilometro burutu beharko dituzte korrikalariak.

Bertan parte hartu nahi dutenek, aurrez izena ematea eskatzen du antolatzailea den Txindoki Atletismo taldeak. Hiru bide jarri dituzte horretarako. Helbide elektronikoa: txindokiat@yahoo.es; telefonoak: 676735073 - 685755946 - 943085088. Postaz: Ordiziako 5. posta kutxa. Izen-ematea aurrez eginez gero, 8 ordu ordaindu beharko dira; egunean berta, 10 euro.



AMEBI



Sagardotegia

Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO

LOINAZARGI

Jose Lasa, 8-10 - LAZKAO
Tel.: 943 164 846 - 627 505 687



- Elektrizitate gaiak
- Argiteria
- Etxeetarako hornikuntzak
- Informatika-gaien salmenta eta konponketa
- Informatika hornikuntzak, sareak
- Telekomunikabideak

07-08kurtsoa

maizpide
Lazkao

943 88 92 31
lazkao@maizpide.com
www.maizpide.com

Deituetaemanizena!!!

Barnetegian
hilabeteko ikastaroak.
Familia
euskaldunetan
egoteko aukera.

Ordukako ikastaroak.

euskara

Bizi,

euskaraz

BIZI!

EGA on-line
Autoikaskuntza.

Larunbatetan
Alfabetatze
eta EGA
ikastaroak.

BESTELAKOAK

salgai

Egurrezko mahai bikaina salgai, banku eta aulkiekin. Egoera onean. 690311342.

Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615752211.

Tarot kontsultak. 943766214.

Bulegoko altzariak salgai dauzkagu. 605704512.

Partikularrak hipoteka mailleguak eskaintzen ditu, 'Rai-asnef'-ak ez dauka garrantziarik. 697542552.

ANIMALIAK

opari

Txakurkumeak opari: 2007ko abuztuaren 28an jaiotako. 627824757 - 667852432.

IBILGAILUAK

salgai

BMW 116 I autoa salgai. 2006ko uztailekoa. Urte bateko garantiarekin. Gehigarriak. Prezio interesgarria. 652730092.

LANA

eskaerak

Alemanierako irakaslea behar da. 659844602.

Ordizian, denda bat eramateko pertsona bat behar da. 8:00etatik 14:00etara deitu. 943885500.

Beasainen emakume edo neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Goizeko 7,30etatik eguerdiko 1,30etara. 615795480.

Zerbitzari euskalduna behar da Beasaingo taberna batean. 616698236.

Eraikuntzarako langilea behar da, Goierriin edo Tolosaldean lan egiteko. 649463289.

Zerbitzaria behar da Goierriko taberna baterako. 646787507.

Neska edo emakume bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 686441006.

eskaintzak

Orduka lan egiteko neska eskaintzen da: umeak edo adinekoak zaindu, garbiketa... 648051991

Goierritarrako iragarki laburrak: hitz bakoitzeko 0,63 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 88 96 12

goierritarra@goierrikohitza.info / gh@goierrikohitza.info

ETXEBIZITZAK

errentan hartu

Legorreta. Pisua errentan hartu nahi dugu. 660859946.

salgai

Ataun. 60 m². Berritua. Prezio interesgarria. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Ataun. San Gregorio. 2 eta 3 logelako etxebizitzak. 186.000 eurotik hasita. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Beasain. Jose Migel Iturrioz kalea. Gazteentzako aproposa. 60 m². 2 logela. Igogailuarekin. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Beasain. Etxebizitza bezala egokitutako baxua saltzen da. Erdigunean. 63.500 euro. Negoziagarriak. 686062963.

Beasain. Etxebizitza salgai. 72 m². 3 logela, egongela, sukalde eta bainugela, trastelekua, terraza (50 m²). 680238512.

Beasain. Mateo Muxika. 70 m². 3 logela. Guztiz berritua. Oso argitsua. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Idiazabal. Eraikuntza berriak: 3 logelako azken etxebizitza. 282.500 eurotik. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Lazkao. 60 m². San Jose auzoan. Bitzitzen jartzeko prest. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Lazkao. Hirigoien kalean. 90 m². 3 logela, 2 komun. Egoera onean. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Lazkao. Eraikuntza berriak. 1, 2, 3 logelako etxebizitzak. LAZKAO INMOBILIARIA. 943883739.

Ormaiztegi. Etxebizitza salgai. 85 m². 3 gela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi eta trastelekua. Prezio interesgarria. 615752211.

La Pineda Villasecan (Tarragona) apartamentua salgai. 617878210.

OVER Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

Ikaskide

Joan Iturralde, 5 - Beasain
943 160 120
(arratsaldean)

irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA:

Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, moduluak

UNIBERTSITATE MAILA:

Enpresaritza, Injeniaritza, Kimika eta Fisika

INFORMATIKA:

Mekanografia, Word, Acces, Excel

IKASKETA TEKNIKAK

INGELERA:

Maila guztiak, PET, First Certificate, mintza praktika

2007-2008
ikasturtea

ARRIETA

JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

☎ 943 88 00 02
OLABERRIA

2007/2008 euskara ikastaroak

ESKAINNTZA
EUSKALDUNTZE MAILA GUZTIAK eta EGA (Tutorearekin)
ALFABETATZEA
AUTOIKASKUNTZA TUTOREAREKIN
GURASOENTZAKO IKASTAROAK
ETORKINENTZAKO ETA OSTALARIENTZAKO IKASTAROAK
AZTERKETAK PRESTATZEKO IKASTAROAK

Ordutegi zabala
Beka sistema eta diru-laguntzak

MATRIKULATZEKO EPEA
Irailaren 3tik 27ra

BULEGO ORDUTEGIA
Goizez: 09:00-13:00
Arratsaldez: 15:00-18:00


Beasaingo Udal Euskaltegia
20.
urteurrena



www.udaleuskaltegiak.net

BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA

Loinazko San Martin plaza, z/g BEASAIN Tel.: 943 02 81 00 E-posta: zuzendaritza@beasain.net



07- 08 ikastaroa

NANARRI
LAN BERTIKALAK
680 641 401
676 952 968
www.nanarri.com

ANDAMIORIK
GABEKO
LANAK

Fatxaden eta barruko patioen berrikuntza eta pintaketak
Teilatuak Kanaloiak Bajanteak Tximiniak Altuerako kimatzeak



Gabiriako Elizalde etxeko sendia 1917. urte inguruan

Argazki honetan Lasa Oñatibia sendia agertzen da, gurasoak, 8 seme-alaba eta suhi bat.

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Domingo Lasa, Damiana Lasa, Frantzisko Lasa, Teresa Lasa eta Pako Urzelai (Mikaela Lasa-ren senarra).

Behoko ilaran: Kristobal Lasa, Ageda Oñatibia Gabilondo (ama, izatez Etxeberribizkai baserrikoa), Lorenzo Lasa (pasionista), Paulo Lasa Agirre (aita) eta Mikaela Lasa. **Lurrean eserita:** Joxe Lasa.

GERTU
 ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
 Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
 gertu@gertuasesores.com

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGL Jose Ramon Pato Prieto
 Psikologian lizentziatua
 Elkargokide zenbakia: E-2644
 RPS: 42001

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

berriz

Kale Nagusia, 8
 BEASAIN

Hondarribi, 25
 Hondarribi, 30
 DONOSTIA

ZEGAMA OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
 Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
 ☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.



Goierriko Garraio Zerbitzu Publikoa



FEKTOPE



ORDUTEGIA

07/08

Aidean eramango zaitugu

Egunero lasaiago, erosoago eta seguruago bidaiatu nahi duten milaka Goierritar garraiatzen ditugu.



ALTAMIRA
JATETXEA

Altamiran sukaldaritza maite dugu.
Gure plateren barne muina sasoiko
lehengaiak ardura bereziz elkartzean
datza...

hau, kontzeptu eta sentsazio berriak
ezagutu ditzazun egiten dugu...
zuk eta zure dastamenak hamaika
zapore eta ukituz goza dezazuen.

Altamirako kirolgunea
20240 Ordizia Gipuzkoa
T 685 794 755
altamira@igeri.net

FEKTOPE

ACDA

ANTONIO DELGADO DISEINU ALTZARIAK
SUKALDE GUNEA

Jose Miguel Iturrioz, 16 Behea
20200 Beasain Gipuzkoa
T/F 943 027 626



Perspektiba, usaimena,
platerak, estetika, ura,
aulkiak, txipiroiak, lerroak,
hozkailua, lorea, koloreak,
mahatsak, edalontziak,
bolumena, mantala, labea,
dastamena, geometria,
botila, tomatea, texturak,
labanak, irudia, azpizuna,
simetria, perrexila, gatza,
kazola, gozamena.

Kontzeptu eta elementuak
uztartuz sortutako guneak

DISEINUA SUKALDEAN

